

# EUSKAL ALFABETATZEAREN EREDUAREN ERAIKETARAKO OSAGIAK

Paulí Davila

Alfabetatzearen eremuaren barruan konpontzear dugun arazorik interesgarrienetarikoa bat aipatu alfabetatze-prozesua osatzen duten esparru desberdinak esplika ditzakeen epekatze egokia aurkitzea izango da.

Eskuartean dugun artikulu honetan arazo honetara hurbiltzen saiatu gara Euskal Herrira egokituz. Honela, alfabetatze-modu desberdinak, euskararen erabilerak eta kode ideologikoa nabarmendu ditugu azken 50 urteetako alfabetatzearen elementu egituratzaile gisa. Azpimarraturiko epeak ondorengoak dira: Alfabetatze Murriztua (1940-1970), Alfabetatze Hedakorra (1970-1980) eta Alfabetatze Instituzionala (1980-1990).

Alfabetatze-prozesuak aztertu orduko, aurki ditzakegun gaietako bat komunitate elebidunetan erabilitako alfabetatze-hizkuntzarena da. Gai honi buruzko ikerketa gehienak hizkuntza bakarrean buruturiko alfabetatzeaz aritzen dira eta estatu jakin baten hizkuntza ofizial edo nazionalera mugatu ohi dira. Herri gehienek errealitate linguistikoari so eginez gero baina, kontrakoa jasotzen da zeren estatu elebakardunak aurkitzea benetan arraroa baita. Halaber, herri elebidun edota eleanizdunetan irakur eta idazten irakasteko erabili beharreko hizkuntzaren aldeko eta kontrako argudioak erabat politikoak direnetik (nazio-batasuna indartzea) ekonomikoak eta teknologikoak direnetera joaten dira<sup>1</sup>.

Ikuspuntu honetatik, zenbait herriren azterketa historikotik abiatuz eraiki diren alfabetatze-ereduek datu batzuk adierazten dizkigute, besteak beste, alfabetatze-prozesuek erritmo desberdinak dituztela, irakur eta idazketaren ikasketak gizarte-praktika desberdinei erantzuten dietela, edo alfabetatzearen bultzapena oinarri politiko edo erlijiosoak dituela, eta abar<sup>2</sup>. Kasu espainolean, gaiari buruzko lan klasikoez gain, ekarpen berriak daude zeinen arabera eskolatzeko, modernatze, hiritartze eta alfabetatzearen artean zehaz daitezkeen harremanez ohartarazten gaituzten<sup>3</sup>. Honela, alfabetatze-eredu espainolez ere hitz egin liteke<sup>4</sup>.

Dena den, Euskal Herrian suertatutako euskarazko alfabetatzea azaldu ahal izateko, zehazkizun batzuk egin beharko lirake, zeren komunitate

elebidunetan eredu "estatalek" Estatuaren hizkuntzazko alfabetatzea bakarrik esplikatzeko baitute.

Hau kontutan izanik, Euskal Herriko alfabetatze-ereduan, populazioari idazten eta irakurtzen irakasteko erabilitako hizkuntzaren arabera, hiru alfabetatze-prozesu desberdin aintzartat hartu behar direla baieztatu daiteke. Alegia, gaztelania, frantsesa eta euskararen arabekoak, azken hau Euskal Herriaren hizkuntz propioa dena eta besteekiko hizkuntza distantzia nabarmena duena izanik.

Aipaturiko errealitate soziologiko eta linguistiko hau eta alfabetatzearen historian egin berri diren ekarpenak oinarritzat hartzen ditugu artikulu honetan, hemendik eta ikusmira historiko batetik euskararen alfabetatze-eredua eraikitzen hasteko<sup>5</sup>. Eredu honek hizkuntza, kultura eta testuinguru elebiduneko hezkuntza jartzen ditu harremanetan, euskarazko alfabetatze-prozesua oinarritzeko eta funtsezko osagaitzat hartuz.

Harrigarria bada ere, euskarazko alfabetatzea zentzu zabal eta "masibo"an fenomeno berria da eta ikastolen bidezko eskolatzeko-prozesuarekin zein hizkuntza eta kultura berreskuratzea helburu duten errebindikazio nazionalaren gizarte-mugimenduarekin lotuta dago. Honen ondorioz, landutako ereduak frankismoaren hasieratik honako distantzia historikoaz besterik ez du eskuratzen. Halere, ereduak ez du baliogabetzen egun ikertzen ari den frankismo garai hau baino lehenagoko euskarazko alfabetatzea<sup>6</sup>.

Gauzak honela, azaltzen ari garen eredu oinarritzko hiru kontzeptu nagusiren arabera eraiki da:

1.- Alfabetatze-moduak: irakur eta idazketaren garapen konkretua ahalbi-deratzen duten bitarteko, metodo, talde-tipologia eta ekintza-multzoa. Adieraziko ditugun epeei jarraituz, alfabetatze-moduak literarioa, kritikoa eta instrumentala izango lirake.

2.- Euskararen erabilerak: alfabetatze-prozesua garatzen den marko orokorra da, bertan alfabetatzearen eta hizkuntz erabilera soziala zein eskolarraren artean dagoen eragina zehazten delarik. Honetarako irakur eta idazketa-testuinguruak, administrazio publikoan zein hezkuntz-sisteman emandako hizkuntz erabilera, literatur produkzioa, komunikabideak,... eta abar aztertuko ditugu.

3.- Kode ideologikoa. Euskal kasuan, epe honetako hizkuntzaren berreskurapena, beste alfabetatze-prozesuak ez bezala, ideologia nazionalistaren gizarte-mugimenduarekin lotuta egon da, berorrek testuinguru sozial desberdinen eraginez hizkuntza eta kulturari buruzko bere definizioa egokituko duelarik.

Hiru atal hauek alfabetatze-prozesuaren barnean sinkronikoki zein diakronikoki ematen diren bilakaera eta aldaketak ikusteko bidea ematen digute. Era honetara, eta hiru osagaien egokitzea dela medio, epe desberdinak kontzeptualizatu ahal ditugu, ezaugarriak eta desberdintasunak antzematen ditugularik. Honela hiru epez hitz egingo genuke:

“Alfabetatze Murriztua” (1940-1969), “Alfabetatze Hedakorra” (1970-1980) eta “Alfabetatze Instituzionala” (1981-1992).

Ikus ditzagun ondoren epe bakoitzari dagozkion ezaugarri nagusiak:

---

### **1. Epealdia: Alfabetatze murriztua (1940-1969):**

---

- Alfabetatze-modu literarioa. Modu hau euskaldunei zuzendutako alfabetatzearen helburuek definiturik datorkigu; alfabetatutako erdalduen kopurua oso txikia zen eta euskara autodidaktikoki ikasten zutela esanenez. Alfabetatze-metodoak, oro har, Gerra Zibilaren aurreko gramatika-liburuetan oinarritzen dira, nahiz eta bestelako gramatikak ere argitaratzen hasten diren. Alfabetatze-modu honen izaera literarioa eskatzen den formazio-erak markaturik dago. Erlijio-ordenen barruan taldeak eratzearen datuari azpimarragarria deritzogu, gehien batez euren alfabetatzeaz kezkatutako frantziskotar eta beneditarrak. Honelako taldeak euskaraz idatziriko aldizkari eta lanen sorkuntzarako funtsezkoak izango dira. Euskaltzaindia bera ere alfabetatzearen zabalkundean era instituzionalean mantenduko da. Rikardo Arregik bultzatutako lehenengo alfabetatze-kanpaina alfabetatze murriztu honen haustura markatzen duen esperientzia izango da. Era berean Kili-Kilik, umeen alfabetatzean oinarriturik, hartuko du berebiziko garrantzia.

- Euskararen erabilerak. Euskararen kontrako zapalkuntzaren eraginez,

hizkuntzaren erabilera esparru pribatuan eta espazio sozial murriztuetan mantenduko dira. Hala ere, epearen lehenengoetan gehien batez, zabalkunde kontrolatuko aldizkari-sorta ibiliko da, bertan gai erlijioso eta literarioak nahiz eta izaera akademikozko beste batzuk ere agertuz. Irakasbide gisa erabiltzeko lan-multzoa ere aipatu behar da. Literaturaren esparru bi huez gain, herrikoiagoak diren beste aldizkari batzu ere hartu beharko lirake kontutan. Idazketaren eragin publikoaren adibideak diren aldizkari guzti hauekin batera, parroki iratiak, euskal diskografia, bertsoen bildumen argitarapena eta euskal literatura berriaren agerpena ere ez da ahantzi behar.

Maila akademiko zehatzagoan, epearen bukaeran euskararen estandarizatorako urratsik garrantzitsuenak emango dira, euskara batua sortuz. Honek hurrengo epeetarako hizkuntz arauketa modu bat ekarriko du, poliki-poliki ikastoletan sartu eta testu literario zein zientifikoetarako arau bihurtuz.

- Kode nazionalista. Eremu nazionalistan, S. Arana eta nazionalismo tradizionalaren irizpide ideologikoak ahopeka mantenduko dira, errepresio-testuinguru horretan. Ideologiaren ikuspuntutik, kode nazionalistan dirauten erlijioa eta arraza bezalako balioak egiazta daitezke. Dena den nazionalismo hau, oro har, 60.eko hamarkadatik aurrera nazionalismo erradikalago batez bat egiten duten planteamentu kultural eta politikoen sorreraren argitan, ahuldutzat har daiteke.

Laburbilduz, “Alfabetatze Murriztua” izendatu dugun epe hau, ikuspuntu sinkronikotik, alfabetatze-modu literarioak (irakur eta idazketaren garapenaren ezaugarriak, metodoak eta taldeen tipologiak ikusirik), euskararen erabilera mugatuak (zeinean errepresioak eta euskarak esparru publikoan duen presentzia eskasak izaera klandestinoa adieratzen duten) eta kode ideologikoan nazionalismo tradizionalaren adierazpen ahulduak definiturik agertzen zaigu. Lehenengo ikastolen sorrerak eskolatzearen oinarriak jartzea inposatuko du, ondorioz umeen alfabetatzearen aukera ahalbideratuko delarik.

---

## **2. Epealdia: Alfabetatze hedakorra**

---

-Alfabetatze-modu kritikoa. Modu honetan datzaten helburuak alfabetatze-prozesu biren arabera bereiz daitezke; batetik, euskaldunen alfabetatzea eta bestetik, gaztelania edo frantsesdunen prozesua, alegia, euskalduntze-prozesua. Lehenengo alfabetatzea ikastolen ardura izango dela aipatu behar da, helduak erakunde propioek eratutako ikastaro-sareetara sartzen diren bitartean. Zentzu honetan euskara-ikastaroetara joango den pertsona-kopurua benetako “boom”tzat jo behar dugu, gehien batez euskalduntze-ihardueretan euskaldunen alfabetatzea pausuka beherunzko joera hartzen duelarik. Orokorki hiri-fenomenoa den honen parametroetan “euskaldunberria” izenez ezagutatutako ikaslegoaren irudi berria nabarmentzen zaigu. Alfabetatze- eta euskalduntze-eskaerari aurre egin

nahian AEK sortuko da, herrialde guztietan funtzionatzen zuten gau-  
-eskola eta euskal eskola guztiak  
koordinatzeko asmoz. Hizkuntzaren  
berreskurapena ardatz bihurtzen den  
proiektu nazionalaren barruko eskaera  
kultural eta linguistikoei erantzun nahi  
die koordinadora honek. Berau izango  
da gainera, irakas-metodo berriak  
garatuko dituena, bai ikasle-tipologiei  
begira bai hizkuntz erabileraren  
testuinguruak eta ikasketak bildu  
beharrari begira ere. Honexegatik,  
material didaktikoen bitartez eginiko  
ekarpen pedagogikoak eta irakasle  
egokiaren prestakuntza funtsezkoak  
izango dira. Hizkuntzaren irakas-  
kuntza, bere antolakuntzazko, didakti-  
kazko eta abarretako aldeetan duen  
barne-prozesua osatuz, eragin sozial  
nabaria duten ekintza publiko ugari  
sortuko dira. Haien artean  
nagusienetakoa 1978.ean buruturiko  
“Bai Euskarari” kanpaina izango  
litzateke, zeinaren bitartez euskararen  
errebindikazioei bultzada handia  
ematen zaien eta Euskaltzaindia  
hizkuntzaren aldeko bere paperean  
finkatuko den.

-Euskararen erabilerak. Epe hau  
bizitza publiko eta pribatuaren  
esparruetan emango den euskararen  
erabileraren mapa konplexuagatik  
bereiztuko da. Erabilera hauek marko  
instituzionalean eta onarpen ofizialekin  
zein euskararen erabilera publikoaren  
aldeko marko errebindikatzailan ere  
azalduko zaigu. Ezarrera aurrerakorra  
hartzen duen fenomeno hau hedakorra  
da, momentuaren ezaugarriengatik eta  
euskal kultur eta hizkuntzari buruzko  
egoera politiko indefinituagatik.  
Aspektu hauek irakurketa, idazketa,

ahozko erabilera zein euskararen  
erabilera sozialean antzeman ditza-  
kegu. Euskal aldizkarigintza,  
koantitatiboki zein koalitatiboki,  
garrantzitsua da, baita hezkuntza,  
literatur eta zientzi testuak argita-  
ratzeko helburuez agertzen diren  
argitaletxeak ere. Ahozkotasunaren  
alorrean, euskal kantagintza berria da  
azpimarragarria, irratian euskarazko  
programazioen ugalketarekin batera.  
Era berean eta, istilutsua baina  
suspertuz doan hizkuntzaren estan-  
darizatzeko-prozesuan alfabetatze  
teknikoan arituko diren UEU eta UZEI  
agertzen dira, profesionalek eta  
unibertsitariak erabiltzeko material  
baliotsuak ekoiztuz. Azkenez EHE  
erakundearen sorrera beste erreferentzi  
puntua izango da euskararen normal-  
kuntza publikoa eskatzearen ildoan.

- Kode ideologikoa. Epe honetan,  
batez ere Franco hil osteko bigarren  
garaian, nazionalismoaren birdefinitze-  
-prozesua soma daiteke, non nazio-  
nalismo tradizionala ez den nagusia  
izango. Indar politiko berrien sorrerak  
eta testuinguru sozialak aurreko  
nazionalismoaren birdefinitzea ahal-  
bideratzen dute, euskal izaera erlijioan  
eta arrazan baino hizkuntzaren  
errebindikazioan oinarritzea azpima-  
rratzen delarik. Birdefinitze honetatik  
aurrera, non etorkinen integrazioaren  
alde egiten den, Euskadi eta eus-  
kararen inguruko aldarrikapenak  
etengabeak izango dira: Euskadi  
euskaldun. Halere, epearen bukaeran  
eta PNVren hauteskunde-garaipe-  
narekin batera, aldarrikapen hau  
ulertzeko modu desberdinak antzeman  
daitezke. Puntu honetan Hego Euskal  
Herriarentzat frankismotik demokra-

ziara igarotzeak eta konstituzioaren bidezko egituratze berriak eta autonomiaurreko garapenak izan zuten esangura aipatu behar dugu.

Ikuspegi sinkronikotik, hiru atal hauen egokitzea garai honetako aldaketa politiko eta sozialek eraginda datorrigu. Isiltasunaren gizartetik<sup>7</sup> kalea herri-errebindikazioen esparru gisa hartzen den gizartera igarotzeak on egingo dio alfabetatze-prozesuari. Honexegatik alfabetatze hedakorra deitzearen arrazoia; eskaera honexek hain zuten euskara-ikasleen kopuruaren igotzea ekarriko du. Alfabetatze-modu kritikoa deitzearena hazkunde positiboaren krisiari dagokio eta, ikasle-kopuruaren hazkundera, instituzioen sorrera, ikasmetodo berrien sarrera eta herri-kanpainak kontutan harturik, ondorioak zeintzu diren oraindik ezin da jakin. Era berean euskararen erabilerak gizarte osoan zehar zabalduz joango dira, ikastolen mugimendua beste eskola sareekiko sare lehiakide gisa finkatzen den bitartean. Krisi-une hau kode ideologikoa- ren birdefinitzeetan ere planteiatzen da, nazionalismo tradizionala eta erradikalaren artean hain zuten.

---

### **3. epealdia: Alfabetatze instituzionala (1980-1992)**

---

- Alfabetatze-modu instrumentala. Hizkuntz berreskuratzearen ikuspuntutik, eskola-sareetako “D” ereduaren helburuek garrantzi berezia hartzen dute eskolaren bidezko umeen alfabetatzean duten funtsezko-tasunagatik, euskalduntzearen bidezko helduen alfabetatzea zentzu insti-

tuzional handiagoaz jabetzen den bitartean. Magisterioaren alfabetatze eta euskalduntzeak berak euskalduntze-prozesu orokorraren osagarri ukaezina izango da. Era berean, hizkuntz gaitasunezko tituluak lortzeko baldintzak euskara lanpostuetara heltzeko forma instrumental bilakatzen du. Euskararen erabileraren igoerak ikasketa instrumentala derrigortzen du, beste planteamendu sozialago batzuen kaltez. Epe honetan, euskararen ikasmetodoak aniztu egiten dira, euskaldunberriei zuzendutakoak nagusitzen direlarik. Testuinguru euskaldunetan murgiltzea, euskal hizkuntza, kultura eta tradizioak ikasteko modurik eraginkorrenetakoa izango da; hizkuntza bere kulturaren bertan dago sartuta, eta era honexetan bideratu behar da ikasketa.

Talde tipologiari dagokionez, AEKz gain HABE sortuko da Eusko Jaurlaritzak bultzatutako eta era paraleloz sortutako proiektu gisa. Honek egoera gatazkatsua ekarriko du, batez ere finantzaketan eta irakasleagoaren homologatzean, erakunde bakoitzak duen proiektu politikoen arabera bien arteko polarizatzea susma daitekeelarik. Nafarroan eta Iparraldean AEKren presentzia mantendu egingo da. Hala ere, izaera desberdinen (eskaintza pribatua ere badago) sare instituzionala egon arren, alfabetatze- eta euskalduntze-eskaera murriztu egiten da, epearen bukaeran egonkortzera iristen delarik, beti ere ohizko izaera urbanoa galdu gabe. Alfabetatze-kanpainak, horretara dedikatzen diren erakundeek aldetik, era normalduaz jarraituko dute, batez ere ikastaroen hasieretan ikasleak erakarri

nahiaren eraginez. Dena den beste ekinbide batzuen izaera errebindikatzaileria aipatu behar da, besteak beste, euskal hizkuntza eta nortasunaren irudikapen sinbolikoa duen Korrika.

-Euskararen erabilerak. Testuinguru honetan, bizitza publikoaren maila guztietan euskararen erabileraren zabaltzea ikus daiteke. Administrazatetik komunikabideetara, non euskara hutsezko telebista-kanalaren martxan jartzea eta 1990.etik aurrera irakurleei begirako euskal egunkariaren agerpena aipagarriak diren. Gernikako Estatu-tuari jarraiki, instituzioen aldetik elebitasuna ziurtatzen duten ekintzen antolamendua azpimarratu behar da. Marko honetan, garapen instituzional guzti honen oinarria 1982.eko Euskararen Normalkuntzarako Legea izango da, Nafarroan “Vascuencearen Legea” izango den bezalaxe.

Nahiz eta hizkuntz plangintzarako ahalegin hauek egon, eta publikoki irrati, zine, antzerki, bertso eta kantagintzaren bidezko euskararen ahozko erabilera zabaldu, gertakari masiboa denik ezin dugu esan. Populazioaren euskararen ezaguera jasotzen duten 1981 eta 1986.eko erroldetako ezaguera hau heren batera ere ez dela iristen baieztatzen digute. Euskararen normal-kuntzarako atalean, UEU, UZEI eta ELHUYAR erakundeek jarraipena eta euskara unibertsitatean eskuratzen ari den presentzia aipatu behar dira, baita euskararen defentsa, kulturaren bultzada eta normal-kuntza helburu dituen EKB erakundea ere.

-Kode ideologikoa. Azkenengo epe honetan eta nazionalismoaren birdefi-

nitzearen ostean, proiektu nazionalista desberdinak agertzen dira. Bakoitzak, hizkuntzak jokatu beharreko paperaren arabera, herriaren interpretazioa egiten du, batzuentzat naziogintzaren barruan hizkuntza funtsezkoa den bitartean, beste batzuentzat lagungarria baino ez delarik. Beraz, hizkuntzari buruzko borroka politikoa kontrajartze ideologiko bilakatuko da, gertakari linguistiko zehaztetik aldenduz.

Azken epe honi emandako alfabetatze instituzionalaren izena alfabetatzearen ekinbide guztiek hartzen duten izaerari zor zaio. Fenomeno hau ikas-erakundeetan, zein komunikabideetan, baita Korrikan bertan ere soma daiteke. Beraz, instituzionalizatze hau egoera autonomikoan gobernuaren ekintzaren ezaugarria soilik ez da, zeren gizartearen beste esparruetara ere zabaldu baita. Beste alde batetik, ikastolen eskolaratzeak euskarazko lehenengo alfabetatzea beste eskola-sareekin konpartitu beharko du, batzuetan lehia-kutsu handiaz gainera. Era berean, alfabetatze-modu instrumentalaren izena, balio instrumentala gero eta gehiago eskatzen duen gizartean euskara eskuratzen hasten den funtzio sozial berriari dagokio. Euskararen erabilerak, alfabetatze-modu honekin loturik, zabalduz joango dira nolabaiteko efikazia eta normaltze sozial maila bultzatuz. Normaltze-proiektu honetan, hain zuzen, azalduko da kode nazionalistaren kontrajartzea, normaltze-prozesuaren instituzionaltzean eraginkortasun eza dela medio.

Laburbilduz, euskal alfabetatzearen ereduak ondoko egoera hauek kontutan



hartu behar ditu: 1) Euskal Herrian hiru alfabetatze-prozesuren presentzia (gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz); 2) Lehenego alfabetatzeari dago-kionez, ikastola eta hizkuntz eredu- en aplikazioaren garrantzia, helduen

alfabetatze eta euskalduntzean propio sortutako erakundeena bezalaxe; 3) Alfabetatze-moduen, euskararen erabileren eta kode ideologikoaren arteko lotura, definitu dugun ildotik.

---

## Oharrak

---

- 1 ELKARLANEAN (1990): "Questions opérationnelles fondamentales: mise en oeuvre de l'alphabétisation". Bulletin International d'Education, (64), 95-173; SIGUAN, M. (1992): "España plurilingüe", Madril, Alianza Universidad.
- 2 GRAFF, H.J. (1987): "The legacies of Literacy. Continuities and contradictions in Western Culture and Society" Bloomington-Indianapolis: Indiana University Press.
- 3 NUÑEZ, C.E. (1992): "La fuente de la riqueza. Educación y desarrollo económico en la España Contemporánea" Madril: Alianza Universidad; VIÑAO, A. (1990): "The History of Literacy in Spain: Evolution, Traits, and Questions". History of Education Quarterly 30 (4), 573-599.
- 4 VIÑAO, A. (1985): "Del analfabetismo a la alfabetización. Análisis de una mutación antropológica e historiográfica (II)". Historia de la Educación, (4), 209-226.
- 5 Ereduaren lanketarako egin berri diren ikerketa batzuetatik abiatu gara: DAVILA, P. eta EIZAGIRRE, A. (1991) "Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria", in ESCOLANO, A. (edit.); "Leer en España. 200 años de alfabetización". Madril, Fundación Germán Sánchez Ruiperez; EIZAGIRRE, A. eta DAVILA, P. (1991) "Alfabetatzea Euskal Herrian: ikuspegi historikoa" ELE (8), 27-55; ARREGI, P. (1992): "Euskal Alfabetatzearen Lehen Urratsak, 1960-1990" Euskaltzaindia (prentsan). Baita Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatutako eta DAVILA, P., EIZAGIRRE, A. eta FERNANDEZ, I. egindako "Escolarización y alfabetización en Euskal Herria, 1860-1990" izeneko ikerketa.
- 6 Lan honetan tratatzen dugun garaia baino lehenagokoa aztertzeko tesi doktoral bat burutzen ari da egun. Euskal herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean inskribaturik eta A. Eizagirre irakaslearen eskutik.
- 7 PEREZ AGOTE, A. (1984): "La reproducción del nacionalismo. El caso vasco." Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas; PEREZ AGOTE, A. (1987): "El nacionalismo vasco a la salida del franquismo" Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas; GURRUCHAGA, A. (1985): "El código nacionalista vasco durante el franquismo" Bartzelona, Anthropos.